



Mondejua
Santa Fetan errege

ERAKUSKETA ALDAKETA



BEHERAPEN HANDIAK

h e m e n
 DISEINU ALTZARIAK

URDANETA KALEA, 56 • 20240 ORDIZIA
 TFNOA./FAXA: 943 88 46 41

orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio, segurtasun eta kontrol osagaiak


ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08



VENTANAS SAN MIGUEL

Mendeurren etorbidea, 2
(Sarrera Nafarroa etorbidetik)
Tl. 88 91 53 Beasain

*Zure ongizatea
baberstea gande*



**VENTANAS
SAN MIGUEL**

SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).

NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.

EREDU ETA MOTA GUZTITAKOAK.

AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.

30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK.

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:

Mikel Albisu, Joseba Telleria,
Ane Martin, Loinaz Agirre eta
Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
Xanti Etxeberria, Josune Amon-
darain, Maider Azurmendi, Saroi
Jauregi, Iñaki Gurrutxaga, Jon
Arruti eta Maddalen Hernandez.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Ona grafikak
(Artika - Nafarroa)

Tirada: 7.200 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
gain hartzen derrigorrez, aldiz-
karian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



**Zenbait euskal artista
Zerainen bildu zen tertulia
berezia**

Irailaren 26an Zeraingo
ostatuan bazkaldu eta ter-
tulia egiteko asmotan dis-
ziplina ezberdinetako arti-
sta talde bat bildu zen.
Besteak beste, Nestor Bas-
terretxea, Jose Antonio
Sistiaga, Joaquin Rodri-
guez, Jose Luis Isasa, An-
tton Lafonte, Koldo Telle-
ria eta Jesus Jauregi izan
ziren Zerainen.

Artista hauek garrantzia
ematen die artea hiriburue-
tatik atera eta nekazal in-
guruneetara gerturatzeari.
Seguran *Iparra-Hegoa* os-
pakizunaren inguruan Je-
sus Jauregiaren tailerrean
egin zen euskal artisten
erakusketan sortu zen
ideia. Artistak bildu eta be-

raien ardura eta kezken in-
guruan hitz egin nahi dute.

Biltzeko nagusiki bi
helburu dituzte:

Kanpora begira: artis-
ta bezala uztartu eta dituz-
ten ardura, arazo eta kez-
kak aztertu.

Barrura begira: talde
bezala egituratu beraien
interesak defendatu ahal
izateko.

Hau lehenengo saio
apal bat bakarrik izan dute.
Hasiera izan da Zeraingoa.
Hemendik aurrera tertuli
gehiago egingo dituzte.
Tertuli hauetan hitz egin-
dakoarekin koaderno bat
argitaratzeko asmoa ere
badute.

BOTA BERTSOA



Aitor Sarriegi

*Goierriko bertso-eskolako
ikasle ohia*

**Odolkiak ala
mondejua?**

*Doinua: Iparragirre
abila dela..*

Galdera zaila egin didate,
erantzuten nahiko lan da
baina hasita egin behar dut
gustukoen propoganda
Jatun txarra naiz baina
ezin inor engaina
hobe odolkiak janda
bestela ezin etsiko nuke
beasaindarra izanda.

Mondejuekin eztabaidara
iristen gara askotan
baina ezin da ezer argitu
horrelako bi bertsoan
Azkenik odolkia
aukera egokia
egin dut aurreko hortan
gainera beltza hartuko nuke
mondejua hartzekotan.

*Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Notaritzak eta euskara

GOIERRITARRA aldizkariaren 108. alean (1997-01-31), Notaritzek, Erregistroek eta Artekariek zuten hizkuntz jokabideaz idatzi nuen eta argi eta garbi adierazi nuen 10/1982 Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legeak arautuaren arabera euskaldunok Euskal Autonomi Erkidegoan genuen eskubideari ez ziotela erantzuten.

Harez geroztik ez dut uste oro har jokabide hori aldatu dutenik, baina azkenaldian bada jokabide hori aldaraz lezakeen ebazpen berri bat: Espainiako Justizi Ministaritzako Erregistro eta Notaritzetako Zuzendaritza Nagusiak 1998-05-08an emana. Ebazpen hori, Nafarroan salatutako kasu baten ondorioz etorri da eta Nafarroan hango LORAFNA (Vascuencearen Lege) deituaren arabera erabiltzeko balio du. Hedabide-

etan inolako aierik eman ez zaion arren, oso garrantzitsua da eta dokumentuak euskaraz eskatzeko funtsezkoa izan daiteke.

Bestalde, Gipuzkoan ere bada kasurik gisa berean salatu eta errekurrituta dagoenik eta agian laster atera daiteke antzeko ebazpenik EA-En ere gauza bera agindu lezakeenik. Zain gaudenez, betor lehenbailehen!

Kontua zera da, Elizondoko Notaritzan euskaldun batzuek eragiketa baten eskritura euskaraz egin nahi izan zutela eta Notaritzan, espainieraz eta euskaraz egin beharko zituztela adierazi zietela eta euskarara itzultzeko kostua nahiz orrialde gehiago izatearen kostua (Notaritzetan orrialdeen arabera kobratzen dute), berek ordaindu beharko zutela.

Hori noski, euskaldunei gaitzarguak eta kostu erantsiak eskatzea da eta legearen aurrean eskubide berdina ez

bermatzea. Legearen arabera, herritarrak eskubide du hizkuntza berak aukeratzeko eta aukera hori egiteagatik gehiago ez ordaintzeko. Horregatik, Baztango euskaldun fin haiek, gastuak zintzoki ordaindu zituzten, baina kobraketa hura errekurritu egin zuten Iruñeko Notarioen Elkargoan. Iruñeko Elkargoak ez zieten arrazoirik aitortu eta orduan, Iruñeko ebazpen hura Madrileko Justizi Ministaritzan errekurritua izan zen.

Madrileko Justizi Ministaritzako Erregistro eta Notaritzetako Zuzendaritza Nagusiak, goian adierazitako moduan, ebazpena eman du eta kasu honetan bederen herritar euskaldunen aldekoa izan da hein batean. Ebazpen horren arabera, Nafarroako Eremu euskalduneko euskaldunek, eskubide dute Notaritzako dokumentuak euskaraz jasotzeko eta bi hizkuntzetan idatzitako dokumentu

horiek (jatorrizkoak Erregistroarako espainieraz idatzi egingo baitituzte) ekar dezaketan gainkostuaren kargarik ez izateko, hots, dokumentua hizkuntza bakarrean idatzita balego bezala ordaintzeko (itzulpen-gastuak eta orrialde gehiago izateagatik kobratzekoak administrazioaren kontura izanik). Baztandarraren kasuan, gehiagor ordainarazi zieten itzultzeko agindua eman da.

Gipuzkoako kasuaren ebazpena ematen denean, okerragoa eta desberdina izan daitekeen usterik ez denez, berri emango dugu eta agian kanpaina zabalari ekin beharko zaio, euskaldunok, eskubidezko duguna (ez kapritxozkoa zenbaitzuek dioten moduan) alde guztietan eskatzen eta exigitzen has gaitzen eta Notaritzetako dokumentuak kostu berdinekin euskaraz lor ditzagun.

Andoni Sarriegi Eskisabel
(Beasain)



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN

JM

SUKALDEAK

Euskal Herria Kalea
ORDIZIA
☎ 943 16 06 58



kontsulta eskatu

*Sukaldeak berri edo muntatu behar baduzu,
prezio ezin hobea egingo dizugu*

Argitaratzen duen edizioa argitaratzen

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

TXANDAKA

Garaia da

Hasera nola eman ez dakidala, burua jira-biraka darabilkit. Anitzak dira esan nahi nituzkeen gauzak edo adierazpenak. Asko bai nere artean egiten ditudan hausnarketak. Baina azken bolada honetan hain astindua, hain mugitua darabilgu egungo egoera, hain mugitua darabilgu egungo egoera politikoa, honi buruz zerbait adierazi gabe ezin gelditu...

Politikaria ez naizenez, herritar xume baten iritzia eta analisi "ahul" bat egitea soilik da nire asmoa.

Poza eta alaitasuna bai alderdi eta ideia guztietako jendeengan. Baina poza ez da soilik ekintza gordinak egiteari denboraldi batez utzi diolako talde armatuak, etenaldi honekin aukera berriak sortu daitezkeela ikusten dugulako ere bada. Beraz, talde armatuak betiko gaiztoa izateaz gain, beste funtziorik betetzen du gure gizartean ala?

Ia joku serio honen fitxak mugitzen hasiak zaizkigu, gauza ugari gertatzen ari dira azken bolada honetan. Orain artean elkarri mokoka aritu garenak elkarlanean hasteko garaia da, prentsa bat itzalduta digutenean bestea pizteko garaia da, foru batzuk inposatuak izan zaizkigun bitartean hoiek hautsi eta berriak sortzeko garaia da, guri garenarenetik at beste izaera bat eman nahi izan digutenean orain nirea oihuz aldarrikatzeko garaia da, azken batean euskal herritarrok hitz egiteko garaia da.

Maddalen Hernandez



ETAren su-etenaren ondoren, zein esperantza daukazu?



Karlos Insausti
60 urte, kamioilaria
lazkaomenditarra

Esperantza onarekin nago, horrela segituz gero. Zerbait aterako da mardildarrak piska bat aldatzen badira.

Bernardo Izagirre
77 urte, erretiratu
lazkaotarra

Ni esperantzarekin bizi naiz hil arte. Azkena galdu behar da esperantza. Egoera aldatuko dela uste dut.



Jon Esnaola
26 urte, langilea
abaltzisketarra

Esperantza badaukat. Egoera hobetzen ari da baina gauza asko falta dira egiteko, presoak gerturatzea esaterako.

ZUHAIZKI S. A. L. ZURGINDEGIA



× LEIHOAK, ATE-
AK eta abar
× ESKAILERAK
NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

LOINATZ

Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarako, pintxoak
☎ 943 88 20 07
Nagusia, 27 BEASAIN



ARRIZAR BODEGOIA
Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara
Zaldizurreto, 7 ☎ 943 88 98 44 BEASAIN

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta
sexologi tratamenduak

AURRE ZITA
☎ 943 88 72 21
☎ 910 02 00 41
Oriamendi, 3 - 2. ezk.
BEASAIN

ZINEA



GOIENIZ:

Urriak 15, 'La caja china', 21:00etan, Usurbe antzokian.

ORDIZIA:

'Godzilla', Ostirala 2: 22:15; larunbata 3: 19:30 - 22:15; igandea 4: 16:45 - 19:30 - 22:15; astelehena 5: 19:30.

BEASAIN:

'Espediente X', Ostirala 2: 22:15; larunbata 3: 19:30 - 22:15; igandea 4: 19:30 - 22:15; astelehena 5: 19:30.

'La caja china'

Wayne Wang
(Frantzia-Japonia, 1997)

Jhon, Hong-Kongen 14 urte daraman kazetari ingelesa da eta gero eta liluratuago dago, bai hiriarekin baita Vivian izeneko tabernari txinarrarekin ere. Bien arteko harremana, ordea, ez da Johnnek nahi bezalakoa, neska Chang enpresariarekin noiz ezkonduko zain baitago, horrela bere iragan iluna ezabatuko duela-koan. Hiria pil-pilean dago, urduritasuna da nagusi britaniar koloniaren berehalako amaiera dela eta, orduantxe izango du Johnnek bere minbiziaren berri eta noraezean dabilelarik ezagutuko du Jean, aurpegia erreta duen neska.

Smoke lan ederrarekin arrakasta itzela eskuratu ondoren, amodiozko istorio apal bat kontatuz datorkigu orain Wayne Wang, bere jatorrizko Hong-Kong hiri zurrunbilotsu bezain erakargarrian girotua eta une historikoaren lekuko bihurtuz. Istori gazi-gozoa, baina batez ere xamurtasun handiz kontatua, Jeremy Irons eta Gong Li ospetsuen interpretazioa, bikaina benetan.

MUSIKA

ZALDIBIA:

Urriak 5, Etzakit, plazan, 24:00etan.

Urriak 9, Imuntzo eta Beloki trikitilariak, plazan, 24:00etan.

Urriak 11, Betagarri eta Izurri Berria taldeen kontzertua, 24:00etan, plazan.

BERTSOLARIAK

ZALDIBIA:

Urriak 6, Sebastian Lizaso eta Amaia Agirre, 12:00etan, plazan.

IKUSENTZUNEZKOAK

BEASAIN:

Urriak 9, Felipe Uriarteen 'Irudizko herrialde bat' ikusentzunezkoa, 20:00etan, Aizkorri Mendizale elkartearen.

LAZKAO:

Urriak 7, Koke Lasaren 'Manaslu: Izpituaren Bizi-

lekua' diaporama, Maizpiden, 21:00etan.

HITZALDIA

LAZKAO:

Urriak 14, 'Irrintzia. Gure Herriaren Oihua' hitzaldia, Gerarta Iñaki Arozenaren eskutik, Udaletxean, 21:00etan.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Urriaren 2tik 15era, Torrelavegako 'Tertulia Sago' artista taldearen erakusketa, Usurbe Antzokiko erakusketa-aretoan.

ORDIZIA:

Urriaren 1etik 13ra, 'Vidas minadas' argazki erakusketa, Barrenan.

Urriaren 2tik 16ra, Mohamed Anzaoui eta Mouad Yebairren pintura erakusketa, Barrenan.

OSKARBI OINETAKOAK



Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25

88 19 44

ORDIZIA



AHOLKULARITZA
Hiribarren, 30
943 16 23 93
LAZKAO

♠ Aholkularitza juridikoa, fiskala, laborala, kontablea...
♠ Zure arazoentzat neurri-neurriko erantzunak ditugu!



"Ekogarbi ilargia bezain garbi"

943 16 02 23 - 970 95 00 88
Atxisain baserria IDIAZABAL

Garbiketa eta mantentze zerbitzuak

SERIOSASUNA,
KONFIDANTZA,
PROFESIONALITASUNA

AMEBI



Sagardotegia

Erretegi bezala egunero irekita eguerdi eta gauean, astelehen gauean ezik.

- ✕ Eguneroko menua
- ✕ Karta zerbitzua
- ✕ Plater konbinatuak
- ✕ Asteburuetan menu bereziak

Zubierreka, 9 943 16 25 23 LAZKAO

'Testugintza: euskaraz txukun idazteko tresnak' ikastaroa Beasainen

Beasaingo Udal Euskaltegiak antolatuta, 'Testugintza: euskaraz txukun idazteko tresnak' ikastaroa izango da urriaren 13tik azaroaren 12ra bitartean, Andoni Sagarnaren eskutik. Astearte eta ostegunetan, 16:00etatik 19:15etara izango dira ikastordutak. Izen emateak, Euskaltegian bertan edo 943-805254 telefonoan.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Urriak 4: Tolosara, Kilo-
metroak 98.

Urriak 11: Beriainera
(1.493 m).

Ordiziako mendizaleak:

Urriak 4: Murumendi-
Tolosa (Kilometroak 98).

Urriak 11: Euskadiko
Beteranoen martxa.

Yoga ikastaroa Ordizian

Urriaren 13tik 24ra Bombaiko Harold Sequieraren eskutik yoga saio bereziak izango dira Ordiziako Barrenan, 19:00etatik 21:00etara. Saio hauez gain, urte guztian zehar ere, ohiko ekitaldiak izango dira Ordizian astelehenetan 9etatik 10,30etara eta astelehen eta ostegunetan, 20:00etatik 21:00etara; eta Lazkaon, asteartetan, 9:00etatik 10:30era. Informazioa: 943-889770 telefonoan.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

Beasain herri erdian
garage plaza bat salgai,
J.M. Iturrioz kalean. 943
886885.

Pianozko eskusoinua
salgai. Prezio interesga-
ria. Deitu 943 180426 te-
lefonoan, gauez.

Txakurkumeak salgai.
Alemaniar artzaizakur
arrazakoak. 943 88 54 63
Mikel edo Elena.

Diskoak, singelak eta
LPak erosten ditu. 943
526577.

Telebista salgai:
SONY KV 25 C3 E mar-
kakoa. 135.000 pezetan.
Xabier. 943 31 04 29.

Zozketa batean egoki-
tutako mendi-bizikleta
salgai. Berri-berria. Xa-
bier. 943 31 04 29.

Etxebizitzak:

Beasainen 90 m²-ko
etxebizitza errentan eman-
gai. 943 882683.

Pertsona bat behar da
Bilbon pisua osatzeko.
Maider, 943 883880.
Amagoia, 943 885287.

Bi pertsona behar dira
Bilboko San Inazio auzo-
an pisua osatzeko. 943
771377.

Gasteizen neska eus-
kalduna behar da pisua
osatzeko. Nekane. 943
187046.

Pisua salgai Ordizian.
88 m². 943 88 54 63 Mikel
edo Elena.

Lana:


Hondarribian neska bat
behar dugu etxeko lanak
egin eta haurrak zaintze-
ko. 910 40 85 44 (Nerea).

24 urteko neska, etxe-
ko lanak eta beste edozein
lan egiteko prest. 909
491062.

Bestelakoak:

Ordizia erdialdean da-
goen taberna bat traspasa-
tzen da. Bezeritza ona.
943 88 31 80.


GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain).
943-88 05 87.

Urriak 3-4: Laurnaga (Kale Nagusia, 4 - Ordizia).
943-881828.

Urriak 10-11: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain).
943-880232.



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA

Diseinuak neurritan

Larunbat arratsaldean irekita

Erakusketako ☎-faxa: 943 889113 - ☎ mugik.: 908 863591

Senpere Merkatalgunea, 38

BEASAIN

**Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak**

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Lehen hezkuntza
- ✓ DBH, LOGSE
- ✓ Unibertsitate maila
- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Apendizaia arazoak

☎ 943 160 120

Joan Iturrlalde, 5

BEASAIN



Jon Arruti
(ENBA Sindikatuko
Lehendakaria)

"Hauteskundeetatik aterako den Legebiltzarra eta ondorioz, osatuko den Gobernua benetan erabakiorra izango da baserritarrontzat, gure ustez, bai Europa mailan bai mundu mailan nekazal politika aldaketa sakoneko unean dagoenez oso garrantzitsua izango baita ideia garbiak izanik politika ausarta bultzatzea"

Urriaren 25a dugu Eusko Legebiltzarra aukeratzeko eguna. Euskadiko herritarren borondatea ordezkatzeko duten pertsonak hautatzeko eguna.

ENBAren ikuspegitik, hauteskundeetatik aterako den Legebiltzarra eta ondorioz, osatuko den Gobernua benetan erabakiorra izango da baserritarrontzat, gure ustez, bai Europa mailan bai mundu mailan nekazal politika aldaketa sakoneko unean dagoenez oso garrantzitsua izango baita ideia garbiak izanik politika ausarta bultzatzea.

Aldaketa ugari eta sakoneko une honetan, baserritarrok behar duguna lasaitasuna eta egonkortasuna da eta ildo honetatik datoz gure bi lehen aldarrikapenak; hau da, nekazal politikaren lerro nagusiak markatzen dituen 1997-2000 Plan Estrategikoaren errespetoa, bere epeak agortu arte behintzat, eta bigarrenik, onartu berri den Landa Garapenerako Legearen gauzatzea, urrats geldo bainan sendoak emanaz.

Egungo egoera ikusirik, gero eta nabarmenago azaltzen da, Europar Batasunaren indarra eta honenbestez, gure ustean, datorren agintaldian, Europatik finkatzen den politika nola egokitu eta handik datozen dirulaguntzak nola banatu behar diren erabaki beharko da.

Urriak 25: baserritarron ahotsa entzun dadin

Europarekin jarraituz, basogintza bere leku eske dabil eta urrats garbiak ematen ari dira basogintza politika bateruntz, bainan gure ustez, basogintza politika larre zelaiak berlandatzeko politika baino askoz zabalagoa izan beharko luke eta nola ez, baserritarrok natura eta ingurunea mantentzen egiten dugun lan eskergaitza babes-tuko duten laguntza "agro-ambientalak" ezarri eta ingurugiro aldetik gutxienezko baldintzak errespetatzen dituzten baserri guzietara zabaldu beharko lirateke.

Europatik etxeruntz etorri z gero, bada bai, bertatik eman daitekeen hainbat konponbide, hala nola, gure gizarte moderno honek beharrezkotzat jotzen dituen azpiegiturak nekazal lurrarengan duten eragina gutxiestuko duten lur antolamenduak eta bestetik, lur sailen mugikortasuna bizkortuko duen bitartekaritzako erakundea

sortzea. Azpiegiturak lur asko jaten dute, bainan, zer egiten dugu alferrik galtzen eta sasiak jaten ari diren hainbat lur sailekin?

Lurra eta gizakia dira benetako zutabeak edozein ihardueran eta geurean ere, ezinbestekoa dugu alde bate-tik sektorea gaztetzea eta orain arte hainbesteko lana egin duten emakumeen lana legeaz aitortzea. Biei irtenbidea eman nahi badiugu ezinbestekoa izango da hain motza geratzen den nekazal gizarte segurantzaz aldatzea eta gaurkotzea. Ez da ez, Eusko Jaurlaritzari zuzenean dago-kion gaia bainan bere bultzada eta partehartzea zeharo erabakiorra izan daiteke.

Ezin bukatu gaurko esku-titz hau, gure azpi sektoreen egoera aipatu gabe. Oso garrantzitsutzat jotzen dugu gure produkzioari balio gehigarria emango dion nekazaritzako elikagaien industria bultzatzea, baserritarron partehartzea sustatzea eta bestetik, kalitatean oinarritutako gure produkzioa arriskuan jartzen duen "galera duen salmenta" sistema ezabatzea.

Hauek dira, labor labor azalduta, ENBA sindikatuak agintaldi berrirako ditue lehentasunak. Bada beste hainbat gai aipatu gabe geratu direnak bainan laborra izateak ere bere abantailak dituelakoan agurtzen naiz



943 88 55 00 ORDIZIA

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

ERREZETA



Romani Arizkorreta
Joxepane ostatua
Zaldibia

ZAPO ETA LANGOSTINO BROTXETA

Osagaiak: zapoa, langostinoak, baratxuriak, olioia eta perrexila.

Zirian langostinoa eta zapoa sartu, nahi adina. Ontzi batean aurretik olioia eta baratxuri txikitua prestatuta eduki eta txapan gorritzen jarri aurretik, brotxetari gaintetik bota. Gorritu ondoren, labean sartu. Oso denbora gutxi behar du egiteko. Labetik ateratakoan perrexila bota eta limoi puska batekin zerbitzatu.

AHOLKUA



Zorion Insausti
Oreka dietetika eta
medikuntza naturala

Oso lagungarri gertatzen dira makina bat kasutan, infusio, tantak, jarabeak (azukre asko dutenak)... Normalean, infusioa eta tantak helduentzako izaten dira, eta jarabeak umeentzat.

Medikuntza naturalean ez dago sintoma bat kausarik gabe. Horrela, sintoma kolesterol altua edukitzea bada, adibidez, alkatsofera hartu beharko da eta bere kausa tratatzeko dieta egokiago bat (koipe gutxi, landare janariak...).

Nire esperientziaren arabera, kasu gehienetan, osasun arrisku handirik ez dagoenean, nahikoa izaten da lagungarri txiki bat hartu

Sendabelarrak

(sendabelarrak adibidez) eta bizioak gutxiagotzea. Pazientzia piska bat edukita, denborak emango digu arazoia, sintoma hori agertu den bezala joan egingo delarik. Egoera berri hau, gustagarri gertatzen da eta lehengo arazo berdinerantz itzultzea ez da nahi izaten. Orduan benetan sendatzen da, pertsona aldatu denean, bere aurreko ohiturak neurri batean utzi eta errealitate ikusteko beste modu bat edukitzen da.

Denok dugu logika hau gure barnean. Ez al da naturala?

Hona hemen zenbait gaitz arrunten aurrean hartu behar diren sendabelarrak:

Urduritasuna: garraiska (melisa), belar bedainkatua (baleriana)

Idorreria: fibra, magnesio karbonatoa.

Argaltzea: algak, urkia

Tentsio altua edo bajua: elorri zuria.

Katarroa edo eztula: ezkaia (tomillo).

Gripeak: ezkaia.

Azaleko gaitzak (gorritasuna, granoak...): urkia

Sukarra: sahatsa.

Kolpeak: arnika.



Oreka

Dietetika eta
medikuntza naturala
Zorion Insausti

oreka



Iridiologia

ARAZO HAUEK SENDATZEN DIRA:

ARGALTZEKO DIETA	ZIATIKA
URDURITASUNA	BIZKARREKO MINA
DEPRESIOA	AZUKRE ALTUA
DIGESTIO TXARRA	BURUKO MINA
IDORRERIA	EDOZEIN MIN
TENTSIO ALTUA	KOLESTEROLA



Pisua eta altuera

Reflexoterapia

Kale Nagusia, 8 - 1.
943 88 13 37 **ORDIZIA**

98-99 IKASTURTEA

Nick's

ENGLISH CENTRE

- > Maila eta adin guztientzako klaseak
- > Ingalaterran egonaldiak
- > Itzulpenak
- > 22 urteko esperientzia

IZEN EMATEA:

GOIZEZ: 943 16 00 51 edo 943 88 00 83

ARRATZALDEZ: Getatik Betara:

NICK'S ENGLISH CENTRE
J. M. Barandiaran, 1 **ORDIZIA**



Etxegarateren Bikoizketaren Aldeko Plataforma:

"Emandako hitza bete dezatela"

Irailaren 25ean bildu zen Etxegarateren Bikoizketaren Aldeko Plataforma. Emandako hitza bete dezala eskatu diote Gipuzkoako Diputazioari. Izan ere, aste honetan Gobernu Batzordeak bikoizketaren azken faseko proiektuari behinbetiko oniritzia emateko asmoa dago, baina Plataformakoek jakinarazi dutenez, erabaki horren kontrako jarrerara hartu dute azkenaldian EAJk eta PSOE-EEK eta Plataformakoek, onartuko ez dutenaren zalantza azaldu dute. Diputazioak urte bukaerarako obrak adjudikatuta egongo zirela hitz eman zuen, 2002. urterako bikoizketa bukatuta egonez. Plataformakoek adierazi zuten, bide zati hau bikoiztu gabe egoteak, hildako eta istripu asko eragiten ditu. Antton Jaime, Gipuzkoako Garraio eta Errepide diputatuak dena den, hitz emandako epean burutuko dela Etxegarateren bikoizketa adierazi du.

Garraioliariak ere azkenaldi honetan kexu azaldu dira, istripu asko izaten baitelako bikoiztu gabeko 12 kilometro horietan. Zorua oso egoera txarrean omen dago eta euriarekin istripu asko izaten da, baita hildakoak ere.



Su-etena

Irailaren 17an, ETAk mugababeko su-eten osoa iragarri, eta hurrengo egunean, HBk manifestazioa egin zuen Ordizian, 'Hitza eta erabakia' lemapean.

Epaiaketa Parisen

Kepa Mujika ordiziarra eta Josu Lopez beasaindarra epaitzen ari dira. ETako kide izatea leporatzen diete biei. 1994an atxilotu zituzten biak.

Sasieta: zaborra gora

Sasieta Mankomunitateak emandako datuen arabera, aurtengo lehendabiziko 6 hilabeteetan zaborrak gorantza egin du. Egunean, pertsonako 970 gramo zabor sortu ditugu; hau da, urtean 365 kilo. Igoera honetan etxeetako hondakinek izan dute pisurik handiena.

Dena den, igoera handiena urte hasieran izan zen, batez ere martxoan. Sasietak antzematen duenez, dena den gorantzko joera hau aldatzen hasi da.

Kilo hauetatik % 14,3ko portzentaia berreskuratu egiten da ondoren berziklatzeko. Hau da, 365 kilotak 52 kilo berreskuratu egiten dira. Berreskuraketa portzentaia hau ere igo egin da iazkoarekin alderatuz. Sasieta datuek azaltzen dutenez, Ordizia da herri berziklatzaileena. Ondoren Ormaiztegi eta Beasain.

IBAI-ONDO



ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g
☎ 943 880543 BEASAIN

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK

- ✓ Matematika
- ✓ Fisika
- ✓ Kimika
- ✓ Teknologia
- ✓ Lengua-Euskara

GOIERRI AKADEMIA

Talde txikiak

- ✓ INGELESA
 - Orokorra: maila guztiak.
 - Komertziala: administrarritza, modulo, goi ziklo eta unibertsitateko ikasleentzat.
 - Teknikoa: lanbide heziketa, modulo, goi ziklo eta unibertsitate ikasleentzat.

- ✓ MARRAZKETA TEKNIKOAK
 - Mekanika
 - Galdaragintza: plano interpretazioak, desarrolloak.
 - UBI, unibertsitarioak, selektibitateak

Kale Nagusia, 32 ☎ 943 888203 - 943 160193 - 943162069 BEASAIN



Igartza sari-banaketa

Irailaren 17an egin zen Beasaingo Udaletxeko Batzar-aretoan, I. Igartza literatura sorkuntza bekaren sari ematea. Aurreko alean aurreratu genizuen bezala, Galdakaoko Julen Gabiria izan zen irabazlea. Angeluko Ur Apalategiri akzesit berezia eman zioten. Bi idazleek, urtebeteko epea izango dute liburua amaitzeko. Sari-banaketan, Beasaingo alkateta, Juan Jose Arizkorreta CAFeko zuzendaria eta Xabier Mendiguren Elkarlanean-ko buruak izan ziren.

Kilometroak-Renfe

Urriaren 4rako Tolosaldeko ikastolek antolatutako Kilometroak 98ra joateko tren bereziak antolatu ditu Renfe. Goizeko 5,34etik gaueko 10,22ra bitartean, 15 minuturo egongo dira tren bereziak. Kilometroak 98ko antolatzaileek, 'Kilometroak 98ko Garraio Ofiziala' izendatu dute Renfe Aldirikoak.

Miren Aranburu

Lazkaoko aktore, bikoizle eta kantariak 'Hamaika korapilo' saioa aurkeztuko du ETB-lean. Magazina izango da, programa intimista eta pertsonala. Eguneroko saioa izango eta denetariko gaiak aztertuko dituzte.

Mikel Agirrebengoa

Mikel Agirrebengoa ordi-ziarrarentzat izan da Ordi-ziako Gazta txapelketan 580.000 pezetaren truke erositako gazta erdia. Olaberriako Prycak irabazi zuen enkantea eta bezeroen artean egindako zozketan, ordizarrari egokitu zaio.

Beasain

Errege Kopako bigarren kanporaketako joaneko partidua 3-1 irabazi zion Beasain futbol taldeak, 2.A mailako Logroñesi. Datorren asteazkenean jokatu beharko dute itzulerako partidua.

Euskara-kirola: eskola-kirol arloa euskalduntzea helburu



Gipuzkoako Diputazioak euskararen erabilera bultzatzeko mahaiak antolatuak ditu, udal ezberdinekin. Kirol-mahaiari dagokionean, Beasaingo, Ordiziako eta Zal-

dibiako udalak hasi dira lehen urratsak ematen. Euskara eta kirola izeneko lan-mahai honen helburu nagusia, kirola eta euskara uztartuz kiroletan euskararen erabilera sustatzea da.

Nonbaitetik hasi behar eta oinarritik hasi dira lanean. Josi Insausti, Beasaingo Udaleko Gaztedia eta Kirol batzordeko buruak argitu digu arrazoia: "haurrek ikastetxeetan euskara dextente lantzen dute, baina ikastetxetik kanpoko ekintza askotan hartzen dute parte. Adibidez, eskola-kiroleko programa hauetan jende asko mugitzen dira: teknikariak, monitoreak, gurasoak, eta abar. Beraz, eskolaz kanpoko ekintzetan euskara kili-kolo gelditzen bada, nahasmena sortzen da. Eskola-kirolean hutsune handiak daude. Lotura hori mantentzeko, nola edo hala, monitoreek eta teknikariek euskara arloan teknifikazioa izan behar zutela ikusi zen, hau da, euskara erabiltzeko tresnak eman behar zitzaizkiena".

Horretarako, hitzaldi eta ikastaro programa bat antolatu dute hiru udalek elkarlanean, besteak beste, gurasoentzat, irakasleentzat eta kirol-monitoreentzat. Ekintza batzuk egin dira dagoeneko, baina beste hiru gelditzen dira:

Lehenengo ikastaroa, urriaren 19tik aurrera izango da, Beasainen: Benjamin mailako kirol-monitoreentzat ikastaroa. 12 orduko ikastaro praktikoa izango da. Goierriko eskola-kiroleko teknikarientzat dohainik izango da eta gainerakoentzat 2.000 pezeta kostatuko da. Beasaingo Antzizar kiroldegian eman behar da izena, urriaren 14aren aurretik.

Bigarrena, Pelota eskola-kirolean ikastaroa izango da, Zaldibian, azaroaren 2tik aurrera. Urriaren 28an amaituko da izena emateko epea.

Azkena, Saskibaloia eskola-kirolean gaia landuko da. Ikastaro hau ere Beasainen izango da, azaroaren 30etik aurrera. Azaroaren 25ean amaituko da izena emateko epea.

 **EGUZKI**
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

☎ 943 88 94 82

BEASAIN

JAUREGI

TOLDOAK s/I

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33

BEASAIN

 **ASTI**
PUB

Zaldizurreta kalea

☎ 943 88 45 06

BEASAIN

Xabier Martinez eta Roberto Ruiz de Aginaga Kilometroak-eko 'sukaldari ofizialak'

Urriaren 4an,
Tolosaldeko
ikastolek antolatu

duten Kilometroak 98
jaiaren barruan, jantoki
bereziak izango dira,
3.000 lagunentzat:
sagardotegia,
garagardotegia eta
jantoki dotorea.
Sagardotegiaren buru,
Xabier Martinez
ordiziarra izango da eta
jantoki dotorearena,
Roberto Ruiz de Aginaga
beasaindarra.

- Sukaldaritzaren modan dago-
ela esan al daiteke?

-**Roberto:** Urte batzuk era-
maten ditugu modan. Ez da-
kit zergatik, baina sukaldari
asko daude lehenengo lerro-
an besteoi igotzen laguntzen
digutenak. Euskal Herrian
sukaldaritzaz dagoen irudia
ez dago hemendik kanpo.
Euskal Herrian sukaldariak
kontutan hartzen dira. Oso
kultura gastronomiko zabala
daukagu, denori jatea gustat-
zen zaigu, jantxeak zaintzea
gustatzen zaizkigu.

- **Xabier:** Potentzial gastro-
nomiko oso indartsua dago.
Historian zehar, Euskal He-
rrian kultura gastronomikoa
handia izan da, guztia jana-
ren edo mahaiaren inguruan
bukutzen dugua. Jendeari
gustatu egiten zaio eta suka-
daritza goraka doa. Urte as-
ko daramazkigu, Euskal He-
rriak ondoen saltzen duena,
gastronomia izanez.

- Euskal Herrian ondoena ja-
ten dela eta harro egoten
gara. Zenbateraino da erre-
ala?

- **Xabier:** Ez dugu pentsatu
behar munduaren zilbor hes-
tea garenik. Bidaiatuz ikus-



Xabier Martinez

Ordizian jaioa, 1964an. Donostiako
Sukaldaritzaren eta Ostalaritzaren Goi
Eskolan Ostalaritza eta Turismoko
Tekniko Espezialista ikasi zuen. Su-
kaldari gisa aritu da Ordiziako Mar-
tinez eta Donostiako Urepel, Arzak
eta Mendizorrotz jantxeetan. Goie-
rriko Lanbide Eskolako Hastapen
Tailerretako irakasle titularra da, Coemco Sodexo Catering
Enpresako Sukaldari Burua Barcelona'92ko Olinpiadetan,
Espainiako Etxeko Sukaldari Burua USA'92 Futbol Mun-
dialean.

Rumbos Kateko Restaurante 1830 Gastronomi Astean La
Habanan eta Milan-Romako Gastronomi astean parte hartu
du. Baita Eusko Jaurlaritzaren 'Zatoz eta kontu ezazu' pro-
mozio kanpainako oturuntzetan Barcelonan, Zaragozan, Va-
lencian, Tenerifen, Bordelen, Parisen eta Mexicon. Gaur
egun Donostiako Sukaldaritzaren eta Ostalaritzaren Goi Eskola-
ko Zuzendari Teknikoa da.



Roberto Ruiz de Aginaga

Beasainen jaioa 1968an, gaur egun
Tolosako Fronton jantxea eta Oria
Hoteleko sukaldari burua da. Do-
nostiako Sukaldaritzaren eta Ostalarit-
zaren Goi Eskolan Ostalaritza eta
Turismoko Tekniko Espezialista
ikasketak egin zituen, sukaldaritzaren
alorrean. Espainiako Sommelier Es-
kolan diplomatua da. Lanean aritu da sukaldari gisa Donos-
tiako Bodegon Alejandron, Lasarteko Goiegi jantxeetan,
Biasteriko Biasteri jantxeetan, Viellako Casa Turnayen eta
Barcelonako Can Ramonen. Goierriko Lanbide Eskolako
Hastapen Tailerretako irakasle titularra da.

ten da hori. Leku berriak
ezagutu ahala, oso ondo ja-
ten dela ikusten da. Euskal
Herrian gastronomia aukera
zabalagoa dago.

- **Roberto:** Oso kultura pro-
pioa da. Sukaldaritzaren herri-
koietatik hasi, elkarteak, eta
sagardotegiak, jantxeak...
aukera handiak ditugu.

- **Xabier:** Estatuaren hegoal-
dean, esaterako, pizzak eta
nagusitako dira. Baina guk,
prezio horretan, janari auke-
ra handiagoa daukagu. Es-
kaintza oso handia da.

- Sukaldaritzaren eskolak ere

goraka al doa? Etorkizune-
ko ogibidea al da?

- **Xabier:** Eskolak ere beste
eskaintza batzuk ematen di-
tu. Ostalaritza oso zabala da,
kamareroa, hoteletako zu-
zendariak, ontzi garbitzaileak...
Duela 15-20 urte arte,
sukaldaritzaren arituz ikasten
zen. Donostiako sukaldari
eskolak 18 urte daramazki
eta ikasleei asko tiratzen die
boom gastronomikoak. Gero
harritu egiten du sukaldari-
tzak.

- **Roberto:** Etorkizuneko ogi-
bidea da, nola eta gustatzen

zaizun. Sukaldarien irudia
polita da. Gu momentu hon-
etan, gozatzeko momen-
tuan gaude. Egutegian egiten
dituzun ahaleginak, beste
konpentsazio eta poztasun
batzuk izaten ditu.

- Hemen gelditzen dira edo
kanpora joaten dira?

- **Xabier:** Hemen zailagoa
daukate. Niri zorionez, su-
kaldaritzaren esker, mundua
ezagutzea egokitu zait. Eta
nik ikasleei kanpora ateratzeko
esaten diet, etxean
gelditzeko denbora egongo
da gero ere. Mundua ezagutu
eta hizkuntza bat ikasteko
aprobatxatu dezatela. Gaine-
ra, esperientzia izugarriare-
kin itzultzen dira.

- **Roberto:** Aukera handiak
ematen dizkizu sukaldari-
tzak. Lan asko dago hemen,
baina kalifikatuenentzat.
Maila oso handia dago he-
men eta borroka ere handia-
goa da. Aukera handiak dau-
de. Baina kontzientzia izan
behar da zer nolako lana
den.

- **Xabier:** Aukeratzeko auke-
ra dago momentu honetan.
Kanpotik sukaldari asko es-
katzen dizkigute.

- Eskolan zer erakusten da:
sukaldaritzaren tradizionala
edo berria?

- **Xabier:** Arlo guztiak uki-
tzen saiatzen gara. Baina le-
henengo geurearekin hasten
gara. Egutegian egoten saia-
tzen gara, platerak moderni-
zatzeko. Eskolaren helburua,
ikasleak, euskal sukaldaritzaren
tradizionalaren oinarria ongi
ikasita ateratzea da. Hortik
aurrera, teknologia berriak
ikasi eta jantxeetan lanean
hasten direnean, beraiek jo-
ango dira abanikoa irekitzen.
Azken batean, janaria pres-
tatzea erraza da. Baina oso



zaila da jakitea, 100 lagunentzat zenbat legatz behar dituzun. Eta horiek denak eskolan erakusten ditugu.

- **Sukaldariak etengabe berritzen ari zarete. Jaleok tradizionalak al gara edo probatzea gustatzen zaigu?**

- **Xabier:** Hemen daukagun potentzial gastronomikoa ez du sukaldariak bakarrik egin. Bezeroek oso paper garrantzitsua bete izan dute, exigentziarekin bakarrik. Bezeroen exigentzia mailarekin keizaten gara. Bezeroak kritikoa izan behar du.

- **Roberto:** Bezeroak ere sailkatu egin behar dira. Fronton bezalako jatetxeetara datorrena, kontzientziatuta etortzen da. Jasotzera dator, exigentea da kalitatearekin. Karta aldatzen dugun bakoitzean, 4 sukaldari eseri eta zein platerak egin eta nola egin erabakitzen dugu. Hau da, nire kasuan hausnarketa izaten da. Talde lana da.

- **Plater berri bat egiteko zer da beharrezkoa?**

- **Roberto:** Produktua aukuratu eta nola egin behar den erabaki behar da. Betiko eran erabiltzen diren osagaiekin plater berria egin daiteke. Asko pentsatu behar da plater berri bat egiteko.

- **Xabier:** Plater berri bat sortzea oso lan zabala da. Ez

da batere erraza. Edaria, platera bera, nola zerbitzatu behar den... pentsatu behar da. Kontzeptu ezberdin ugari hartu behar dira kontuan. Plater berria sortzeko produktua bera, guarnizioa eta saltsa hartu behar dira kontuan. Sukaldariak sortzailea eta irudimenezkoa izan behar du. Gustoa ere eduki behar da. Dekoratzailerik bat daltunikoa bada, nahikoa zaila du. Sukaldaria ere berdina.

- **Roberto:** Norbaitek esan izan du, sukaldaritza dela erabat artesanala den lan bakarrenetarikoa bat. Teknologia asko eduki ditzakezu baina akabera dena eskuz egiten da, oso pertsonala. Oso garrantzitsua da eskulana eta askotan hori ez da baloratzen. Ordaindu denari bakarrik ematen zaio garrantzitsuena. Kontua ez da zenbat ordaindu den, plater hori egiteko zenbat lagun behar izan diren kontatzea baizik.

- **Xabier:** Ia beti, emaitza da kontutan hartzen dena, ez da nola egiten den.

- **Plater txar bat disimulatu al daiteke?**

- **Roberto:** Jatetxe batzuk erratuta daude. Produktuak nahastu egiten dituzte eta produktua enmaskaratu egiten dute. Engainatu egiten dute. Hori faltsua da. Kontzeptu bakoitzak ezberdina

Bazkaria ere 'mundiala'

Kilometroak egunean 4 jatetxe berezi izango dira: **Sagardotegia:** Laskorain ikastolan eta Ibarrako kiroldegian, 1.500 lagunentzat, 2.500 pezetan (Donostiako Ostalaritza eskolak prestatua). **Garagardotegia:** Usabal kiroldegian, 800 lagunentzat, 2.250 pezetan. **Jantoki dotorea:** Ibarrako kiroldegian, 900 lagunentzat, 3.000 pezetan.

- **Nola sortu zen ideia?**

- **Xabier:** Antolatzaileek zerbait ezberdina egin nahi izan dute, orain arteko Kilometroetatik. Deitu ziguten eta jangela bereziak antolatzeko ideia sortu zitzaigun. Orain arteko ohituraekin puskatuko da, nahiz eta ohiko jangaiak ere izan. Prezio onak izango dira. Azpiegitura ona daukagu, jende askok hartu behar du parte bertan. Labeak, sukaldeak, platerak... enpresak utzi behar dituzte.

- **Roberto:** Guztion ahalegina handia da. Momentuan egin beharreko platerak izango dira. Ez da catering bat. Bertan prestatutakoak dira plater guztiak. Ekitaldiak izango dira eta ondo pasatzeko aukera izango dute. Dena den, jende guztia kontzientziatzea eskatuko nuke, guztiok egin behar dugun ahalegina izugarria delako. Guri janaren ardura gelditzen zaigu baina atzetik beste jende asko arituko da. Gauza profesionalen eta herrikoien arteko joko bat egingo dugu. Prezioak oso oso arrazoizkoak dira, egin behar den lana ikusita.

- **Erronka handia al da?**

- **Roberto:** Agian Xabierrentzat eta bere eskolarentzat ez hainbeste, horrelako ekintzak egiten ohituagoak daudelako. Guretzat erronka handia da, erronka oso pertsonala. Tolosan 3.000 bazkari emango dira, aldi berean, eta nik uste Gipuzkoan ez zela kopuru hori gaidituko. Parte hartzea gustatzen da baina arriskua handiagoa da guretzat. Irudi bat dauka Fronton tabernak eta Oria sagardotegiak, eta zerbait gaizki eginez gero, gauza pertsonala izango da. Baina nik uste dut ondo aterako dela.

- **Xabier:** Guretzat beti izaten da erronka. Erronka profesionala da. Ohituago gaude horrelako lanetan. Berlinen, Italian, Frantzian, Toronton, Japonen, Barcelonan... izanda gaude, baina beti gauza berriak izaten dira. Baina sekula ez dugu 1.500 lagunentzako bazkaririk prestatu, eta erronka profesionala da guretzat. Ikusiko dugu nola ateratzen den, ondo espero dut. Eskolako ikasleak ere asko motibatzen dira horrelakoetan. Antolatzaileen aldetik ahalegin handia egiten ari dira, guri lana ahal den neurrian errazteko.

izan behar du. Legatza jartzen baduzu, esparrago saltsa eta baba guarnizioak ez du dena nahastuta joan behar. Kontzeptu bakoitza ezberdinduta joan behar du. Kontzeptu bakoitza ona egon behar da, eta ez gustoak nahastuta.

- **Xabier:** Denborarekin hobetzen ari da hori. Lehen asko kamuflatzen zen produktua, batez ere arraina. Baina

horrek badu bere esplikazioa: lehen ez zeuden gaur egun dauden mantenimentu edo hozketa sistemarik. Historia gastronomikoaren arloan, produktua nola mantendu izan da arazorik handiena. Gaur egun teknikak hobetzen doaz. Arraina esaterako, hainbeste egin gabe ateratzen da; saltsa gainera bota beharrean, inguruan jartzen zaio... beti hobetzeaz

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUAREN KANPAINA MARTXAN:

Euskararen aldeko akordio soziala eta politikoa helburu

Kontseilua,
Euskararen
Gizarte

Erakundeen Kontseilua, duela 3 urte sortu zen. Euskarak garapen osoa izatea helburu duten euskararen 54 gizarte erakundek osatzen dute. Euskararen normalizazioa aurrera araztea, bultzatzea eta bizkor araztea du helburu Kontseiluak. Urriaren 3an, euskararen aldeko akordio soziala eta politikoa lortzea helburu duen kanpaina jarriko du martxan.

Xabier Mendiguren Bereziartu ezkiotarra da Kontseiluko lehendakaria. Kontseilua duela 3 urte, Euskararen Unibertsoa mugimenduari hasi zen. "Euskalgintzan nabari genuen ondoreza izan zen eragile. Euskalgintzan genbiltzan hainbatek etorkizuna kezkatu ikusten genuen, ikusten genituen euskarak



Xabier Mendiguren
Bereziartu
ezkiotarra da
Kontseiluko
lehendakaria.

ematen zituen pausoak ez zirela behar bezain bizkorrak eta etorkizuna ez genuen oso erraz ikusten eta geure bere burua ere ez genuen behar bezain ondo ezagutzen. Talde asko ginen baina elkarren ezagutza handiegirik gabe. Horrek denak eta euskararen inguruan sortzen ari ziren erasoak, gero eta politika murriztailegoak, eta abarrek, eraman gintuen bilerak antolatzen", dio Mendigurenek. Hortik sortu zen Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua. 54 erakunde di-

ra bertako partaide.

Lantaldea eratu, gestio plana onartu eta kanpaina prestatu dute. Lehenik eta behin, bere burua aurkeztea da kanpainaren helburua. Horrekin batera, Kontseiluak euskarari buruzko bere diagnostikoa plazaratu eta akordio sozial eta politikoa bideratu nahi ditu aurreko edo hurrengo urtean. "Beti ere kontuan hartuz barne kohesioa lortzea. Batetik, elkarte oso ezberdinak garelarik gure artean, gero eta lotura estu eta indartsuagoak lortu behar ditugu.

Bestetik, hori egiten ari garen bitartean, kanpo ekintza nagusi bezala aipaturiko akordio sozial eta politikoa bideratu dira. Egia da Kontseiluak bide batez euskararen defentsarako agiri bat ere atera behar izan duela. Erabat aurrikusi gabeko gertaerak ere izan dira eta alde horretatik uste dugu euskararen aldeko politika eta kanpainak beste itxura bat hartu behar duela".

Kanpaina

Euskararen diagnostikoa plazaratu du beraz Kontseiluak. "Euskarari buruz bi joera ikusi izan dira plazan. Alde batetik, euskararen alde orain arte egin diren pausoak, egin diren gauzak oso gutxitat ikusten dituztenak, dena oso beltz eta ilun ikusten dutenak daude. Guk uste dugu hori ez dela erabat egia. Euskararen alde asko egin da, oso garrantzitsuak, aurrerapen nabariak egin dira eta hori onartu eta ezagutu beharra

EROSKI

KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93

ORDIZIA

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN



✓ Aholkularitza
juridikoa

✓ Entrepresa
zerbitzuak

✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel./Faxa: 943 16 21 92

Kale Nagusia, 2 BEASAIN



RENAULT

AGENTZIA

**LAZKAO
GARAJEA**

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901

Faxa: 943 888901

LAZKAO

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak...

Tfnoa.: 943 88 89 53

ARAMA



Herrietako euskalgintzako taldeen elkar ezagutza lortu nahi da, besteak beste, Kontseiluarekin kanpainarekin.

dago. Eta bestetik, badago beste jarrera bat, muturre-ragi joan dena; hau da, baikortasun gehiegizkoarena; euskara oso ondo doala, aurrerapen handiak egin direla, euskara inoiz baino hobeto dagoela, eta lasaitasun baterako deia egin dutenena. Gure iritziz euskararen etorkizuna ez dago inondik hain baikortasun handiz ikusterik gaur gauden bezala. Gainera euskara bere lurraldetasun osoan kontutan harturik, Iparraldean oraindik ere beherako doa; Nafarroan ozta-ozta dago; eta egia da Autonomia Erkidegoan pauso nabarmenak eman dituela ba-

tez ere hezkuntzan. Baina beste alor batzuetan oraindik oso hutsune handiak daude. Hor dago, lanaren mundua, Osakidetza, epaileen mundua, eta beste hainbat sektore", esan du Mendigurenek.

Oraindik eguneroko bizitza euskaraz egin nahi duen euskaldunak arazo askorekin topo egiten du. Beraz garbi ikusten du Kontseiluak, "zoritarrez, ia dena dagoela egiteko eta lurraldetasunari dagokionean oso alde nabarmena dago".

Kontseiluko lehendakariaren esanetan, "diagnostiko honekin oso koherentea

da akordio sozialerako egiten dugun deia. Gizartearen eragina duten eragile horien eskutan dago nolabait, euskararen etorkizuna. Ba-koitzak bere alorrean eman ditzakeen pausoak guk bultzatzea da helburuetariko bat. Gizarte maila honetan pausoak ematen badira ere, akordio politikoak lortzea, errazagoa ikusten da. Hala ere, azkenaldian ikusten diren aldaketak kontuan edukirik, gerta liteke zuzen-zuzenean hauteskunderen aurretik ere, alderdi batzuen artean euskararen aldeko akordio bat bideratzea eta gu bide horretatik lan egiten ahaleginduko gara".

Ekitaldiak

Herrietan aurkezpenak egiten ari dira eta baita batzordeak sortzen ere. Bihar, urriaren 3an, Zamudioko Teknologia Parkean aurkeztuko da komunikabideen aurrean. Herri mailako Kontseilu txikiak eta akordio sozialak ere lortu nahi dira, herrietako euskalgintzako taldeen barne kohe-sioa lortzeaz gain.

Ekintza puntualak ere egingo dira Euskal Herri osoan: euskararen aldeko

orduaren ekimena esatera-ko. Helburua, sindikatuen eta enpresarien laguntzarekin, abenduan, ordubeteko balio ekonomikoa euskararen alde ematea da. Kontseiluak bere proiektuak finantzatu ditzan. Horretaz gain, duela 20 urte 'Bai euskarari' aldarrikapenaren alde egin zen ikuskizun handiaren antzekoa ere egin nahi da urtearen azken egunetan. Ikuskizun horren inguruan, akordio sozialaren jendaurreko sinaketa egingo da.


Kanpaina honekin batera, Kontseiluaren gestio planeko beste bi helburu ere martxan jarri nahi dira: batetik, euskararen neurgailua, urtez urte euskal kulturaren aurrerabidea zenbaitan neurtuko duen tresna sortzea; eta bestetik, euskararen plangintza estrategiko bat burutzea, euskararen aurrerapenerako gizarte eragilean pean nola lan egin daitekeen aztertuz. "Plangintza elkar osagarria gertatuko litzateke Eusko Jaurlaritzak egin duen Euskara Biziberritzeko plangintzarekiko. Beti lankidetzan arituko gara", argitu digu Mendigurenek.



MUJIKALIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Autowag, s.a.



Golf berria!

☎ 943 88 82 54 / 62 / 66
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

**Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea**

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Santa Fe jaiaak Zaldibian

Urriak 5, astelehena:

19:00etan: Santa Fe jaiei hasiera. Goiztiri txaranga ibiliko da kalea girotzen. Ordu berean, buruhandien irteera. Txarangarekin batera Zaldibiko Herri Ekimenak, 'Euskal Presoak Euskal Herrira' lema aldarrikatuz herensugearen kalejira antolatu du.

20:00etan: Mondejuak das-tatzeko aukera, plazan.

24:00etan: Etzakit.

Urriak 6, asteartea:

11:00etan: Herri Meza.

12:00etan: Bertsolarien saioa, Sebastian Lizaso eta Amaia Agirre.

17:00etan: Iztueta dantza taldearen saioa.

18:30ean: Pelota partiduak: Aratz Mendizabal-Ibon Gu-



rrutxaga Harriet Mendizabal-Haritz Eskisabelen aurka; eta Saralegi-Sukia Atxa-Iparragirrenen aurka.

20:00etan: Zirika musika taldea.

23:00etan: Zirika musika taldea.



Iztueta dantza taldeko txikiak entseiatu harrapatu genituen, herriko jaietarako jaialdia prestatzen.

Urriak 7, asteazkena:

11:30ean: Haurrentzat joko eta jolasak herriko plazan.

Ondoren: herriko plazan bazkaria, norberak bere gustoko bazkaria ekarrita.

16:30ean: Zezenak eta pottokak herriko plazan. Ondoren, merienda.

18:30ean: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak.

22:00etan: Aukeran euskal dantza taldearen ikuskizuna.

Urriak 9, ostirala:

18:00etan: 8-11 eta 12-15 urte bitartekoentzat txirridularitza proba.

PILI Harategia

Mondejuetan berezitasuna

Santa Fe Kalea **ZALDIBIA** Tfnoa.: 943 88 28 68

ILLATI TABERNA

- Mondeju pintxo eta etxeko solomoa
- Ogitartekoak

Festa ondo ondo pasa

Santa Fe ☎ 943 88 31 05 **ZALDIBIA**



OSTATU
ERRIOXA jatorrizko izena

Goierriko banatzailea:
SUKIA

☎ 943 88 16 70
Lizarraga baserria **ZALDIBIA**



**ZALDIBIAKO
UDALA**

**ZALDIBIKO
HERRIAK HERRIKO
JAIETAN PARTE
HARTZEKO
GONBITEA EGITEN
DIZUE**



19:00etan: Areta futbol txapelketaren finala.

20:00etan: Amnistiaren aldeko kalejira eta ondoren ekitaldia.

22:00etan: Pelota partiduak: Mendizabal-Gurru-txaga Huarte-Gorritiren aurka eta Arbizu-Sukia Saralegi-Gastesiren aurka.

24:00etan: Imuntzo eta Beloki trikitilariekin dantzaldia. Musika atsedendian Gazte taldearen eskutik Play Back lehiaketa.

Urriak 10, larunbata:

11etan: Haur jolasak.

Eguerdian: Auto kros proban parte hartu behar duten kotxeak plazan egongo dira.

15:30ean: Zaldibiko herri-tarren Auto kros proba.

18:30ean: Herri-kirolak.

24:00etan: Izotz musika taldea.

Urriak 11, igandea:

10:30ean: Diana.

11:00etan: Herri Meza.

Txozna batzordearen egitaraua

● **Urriak 5, astelehena:** Txozna batzordeak bat egiten du Zaldibiko Herri Ekimenak antolaturiko mobili-zazioekin. Sukaldari txapelketa eta ondoren afaria (kartelen bidez zehaztuko dira oinarriak). Afalondoren kantaldia: Aloña/ Joxemi eta Xeto/Daniel.

● **Urriak 6, asteartea:** Mondeju banaketa kalejirarekin batera.

● **Urriak 9, ostirala:** Txozna batzordeak bat egiten du Zaldibiko Amnistiaren Aldeko Batzordeak antolaturiko manifestazio eta ondorengo ekitaldiarekin. Gauean, Adierazpen Askatasunaren oihartzuna zabalduko duen parodia edo antzezpena.

● **Urriak 11, igandea:** Bazkalondoan, bertsolarien saioa eta goizaldera txokolatea txoznetan.

13:00etan: Koadrilen irteera Mutiko txarangarekin.

14:00etan: Bazkaria herriko plazan.

Ondoren: Plazan eta txarangak girotutako koadrilen areko jokoak.

Arratsaldean eta afal or-

durarte: Mutiko txaranga-rekin kalejira.

24:00etan: Kontzertua: Betagarri eta Izurri Berria.

Urriak 12, astelehena:

19:30ean: Mondejuaren entierroa, jaiei amaiera emateko.

ESTANKO taberna Pintxo bereziak

Festak ondo pasa

☎ 943 88 28 65

Sta. Fe, 15

ZALDIBIA

INAKI ERAUSKIN HARATEGIA

Mondeju ederrak!

☎ 943 88 30 87

Santa Fe Kalea

ZALDIBIA

MILA ARRAÑDEGIA




*Zaldibitarak zori onduz
Sta. Fe festa hauetan*

☎ 943 88 90 84

Sta. Fe Kalea

ZALDIBIA



JOXEPANE HERRI OSTATUA

**Jaiak ospatu
Ostatuko janaria dastatu**

☎ 943 88 20 47

Albisu Etxea

ZALDIBIA



ARRESE Jatetxea

Festa onak opa dizkizuegu

☎ 943 88 17 14

ZALDIBIA


GANBO, S.A.



ANDERE
lenceria

☎ 943 88 35 12-16 Faxa: 943 88 35 12
Elbarrena Auzoa, 2

ZALDIBIA



Garbitasunak

Jai zoriontsuak denoi!

☎ 943 88 96 67

ZALDIBIA

ZALDIBIA

Duela hamar-hamabi bat urte hasi zen futbitoaren erronka Zaldibian, Dionisio Agirrerren eskutik. Bere esanetan txiki-txikitatik kirola egitea garrantzitsua da gaztetxoaren garapenerako, kirolaren bitartez gazteen arteko harremanak eta komunikazioa ere lantzen direlako.

Heziketa mailako erreforma dela eta, haurrek bi urte lehenago alde egiten dute herritik, ondorioz, herriko giroa eta gaztetxoaren arteko harremanak hozten dira. "Estanko aurren eze in be denbora asko pasatzen due gaztek", azpimarratu du Agirrek, eta zerbait egin beharra zegoela iruditu zitzaion. Horrelaxe sortu zen herrian futbito talde bat osatzeko asmoa.

Eskolarteko txapelketetan parte hartzen duten sei talde daude Zaldibian, hiru neskenak eta hiru mutilenak. Talde hauen arduradunak, Agirrez gain, Harri Urdangarin, Joxe Manuel Etxabe, Julen Marijuan eta Gaizka Erauskin dira. Zenbait gurasoren laguntza ere azpimarragarria dela dio Gailurrentz Kirol Elkarteko lehen-

dakari den Aitor Garmendiak, nahiz eta oro har gurasoen parte hartzea nahiko eskasa dela aitortu.

Aurten sortu da 2.B mailan arituko den mutilen taldea. Egitasmoa epe luzerako dela kontutan izanik, esperientziadun futbolariak sartu dira taldean, baina atak irekita gelditzen dira gazteagoentzat ere. Nesken taldearena, berriz, kontu zaharragoa da. OHO amaitu ondoren futboleko jarraitzeko aukera gutxiago zutela eta, duela bi edo hiru urte federatu ziren neskak. Bi talde hauen harrobi gisa, kadete mailan jokatzen duten beste herritar batzuk ere badaude.

Finantzaketa

Talde hauen guztien finantziaketa udalaren esku dago nagusiki. Herriko enpresa eta komertzioen laguntza ere azpimarratzen du Edu Sainz, gizonetako federatuen taldeko entrenatzaileak. Dena den, guztiaren beharrean aurkitzen dira proiektu hau gauzatzeko. Bestalde, "diru kontuk eamaten launduko diun talde bat osatu nahien gabiltz", gaineratu du Kirol Elkarteko lehendakariak.

Futbitoarekin herria girotuz



Agurtzane Azurmendi, Joxean Ganzarain, Maite Irazustabarrena, Haritz Beloki, Aintziñe Nazabal, Edu Sainz, Eider Alberdi, Dionisio Agirre, Jone Gaztañaga, Naiara Azurmendi, Amaia Ganzarain, Garikoitz Aierza eta Alazne Gorrotxategi.

Arg.: Carlos Corbella.

"Entrenatzeko lekue eta materiala ere ez dauzkeu sobran. Zorionez Zaldibian Pelota Eskolak ere jende asko biltzen do eta frontoian ez-tau danontzako lekuik", kezkatzen da Agirre.

Taldeakideak

Edu Sainz arduratzen da gizonetako entrenatzeaz, Joxema Aranzabe ibarratar Zaldibiratuarekin batera. Hauek dira taldea osatzen duten jokalariek: Antonio Diaz, Unai Zubeldia (ordiziarra), Sebastian Miranda, Oskarbi Lizaso, Joxi Urdangarin, Haritz Beloki, Garikoitz Aierza, Aitor Garmendia, Iker Atxotegi, Pa-

blo Morales, Joxan Ganzarain eta Harri Urdangarin.

Federatutako neskak berriz, hauek dira: Amaia Ganzarain, Leire Lopez (beasaindarra), Maite Irazustabarrena, Agurtzane eta Naiara Azurmendi, Eider Alberdi, Izaro Azurmendi, Leider Agirre, Jone Gaztañaga, Alazne Gorrotxategi eta Aintziñe Nazabal. Hauen entrenatzaileak Dionisio Agirre eta Aitor Garmendia 'Makuto' dira.

Lerro hauen bitartez Lurdes Arteaga Kultur-Etxeko arduradunaren lana eta laguntza goraipatu nahi dute.

Saroi Jauregi - Iñaki Gurrutxaga

GUREA MERTZERIA (PEPITAN DENDA)

Arropa denda

- ◆ Emakume
- ◆ Gizon
- ◆ Haurrak

Txindoki, 23 ☎ 943 88 57 98 ZALDIBIA



LAZKAO-ETXE

● JATETXEA ASTEBURUETAN ZABALIK

● NEKAZALTURISMOA

- 4 logela, beren bainugelekin
- Gosari, bazkari eta afariak

☎ 943 88 00 44

Aiestaran erreka

ZALDIBIA



Sagardo denboraldian zabalik
urtarriletik maiatzera

Jai zoriontsuak eta dishizuegu!

Urtesabel auzoa ☎ 943 16 13 59 ZALDIBIA

ZUBI ONDO

TABERNA

☎ 943 88 28 76 ZALDIBIA

IDIAZABAL

Udazkenerako kirol eta eskulan ikastaroak

Kultura Batzordeak datozen hilabete hauetarako eskulan eta kirol ikastaro ugari antolatatu du. Eskularen artean: egur dekorazioa, zeramika, saskigintza, jostelanak, harilanak eta tilla. Hauek guztiek 30 ordu iraungo dute. Izena emateko epea asteburu honetan bukatuko da, horretarako aukera Kultur etxean, Udaletxean eta kiroldegian duzue. Ikastaro bakoitzeko 3.000 pezeta ordaindu behar dute helduek, jubilatu eta ikasleek, berriz, 1.500.

Kirola egiteko asmoa dutenek ondoko eskaintza dute: Soinketa, aerobika, yoga eta gimnasioa erabiltzeko aukera. Soinketarako hiru aukera daude: goizez (helduentzat), bazkalondoa (jubilatuentzat) eta iluntzean (aerobika). Gimnasioa erabili eta yoga saioetara joan nahi dutenek izena eman ondoren izango dute ordutegia aukeratzeko modua.

Zirika Irratia

Urriaren 3an, larunbata, eguerdiko 13.00ean hasiko du Zirika irratiak aurtengo ikasturtea. Larunbatero bi

orduko saioa eskainiko dute F.M.ko 99,3an. Zirika Irratiko taldeak jakinarazi duenez aurten informazioari tarte zabalagoa eskainiko diote. Ordu batean hasita ordubetez herriko berriak, asteko gaiari dagokion elkarriketa, kirol albisteak eta inguruko herrietan gertatutakoa azalduko dute. Ordu bietatik aurrera entretenimendurako aukerak eskainiko dituzte.



Mus txapelketak

Joxe Mujikak eta Javier Loidik (argazkian) irabazi zuten Idiazabalgo Kirol Elkartek antolatutako mus txapelketa. 45 bikotek parte hartu zuten lehiaketan.

Ursuarango festetako txapelketan, berriz, 42 bikote aritu ziren nork gehiago. Irabazleak, Zeberio eta Etxaniz izan ziren.



Ursuarandarrei oroigarria

Ursuaran Idiazabala atxeki zela 50 urte bete direla gogoratzeko, Idiazabalgo Udalak oroigarri bat eman zien ursuarandarrei San Migel jaietan. Aurreko larunbatean, hilak 26, meza nagusiaren ondoren eman zien oroigarria Antton Irizar alkateak. Atxekimendu prozesuaren berri eman zuen eta Ursuaranek Idiazabali egindako ekarpenak gogoan izan zituen alkateak, ursuaranderrei une hartan egindako aukera ere eskertu zien. Hona hemen prozesu luze haren kronologia laburra:

- **1944ko urria.** Ursuaranek Idiazabali atxekitzeko zituen arrazoak jaitera eman zituen.
- **1946ko iraila.** Atxekimendua gauzatzeko Idiazabalgo udalean komisia berezia sortu zen.
- **1947ko urria.** Madrilgo Minsitro Kontseiluak atxekitzea onartu zuen.
- **1947ko abendua:** Atxekitze ofiziala ospatzeko jaia Ursuaranen.
- **1953ko abendua.** Segurak jarritako alegazioa atzera bota eta Epaitegi Gorenak atxekitzea berretsi zuen.

Xabier Urteaga



Loradenda

- ✓ Ezkontzako lora sortak
- ✓ Kotxe eta eliz apainketak
- ✓ Koroaiak
- ✓ Enpresatako koroaiak
- ✓ Lora apainketa mota guztiak
- ✓ Larunbat arratsaldetan zabalik

Santa Fe jai zoriontsuak!

943 889 883

Geltokiko kioskoa ORDIZIA

Bilore

Santa Fe jai
zoriontsuak
guztioi!


Tel. 943 88 18 00
Faxa: 943 88 90 12
Elbarrena Auzoa z/g.
20247 Zaldibia

ALTZAGA Etxebizitza berriak eta pilotalekua, herria bizitzeko

Herri kaskoa erabat itxuraldatzera doa. Goiekik egin-dako Plan Estrategikotik abiatuta, 30 etxebizitza berri, pilotaleku berria eta plaza urbanizatuko dira, 5 urteren buruan.

Zortzi etxebizitzak babes ofizialekoak izango dira eta dagoeneko hasi dira lurra mugitzen. Salduta daude guztiak. Orain, beste 22 etxebizitzaren proiektua dago. 4 blokeko etxe adosatuak izango dira, 110 m²koak: bi solairukoak, garagea eta trasteroarekin. Kostu prezioan salduko dituzte, udalak egindako gestioari esker: 20 milioi inguruan.

Imanol Mujika alkateak adierazi digunez, "terrenoa dextente diru kostatu zen eta normak aldatu egin behar izan ziren proiektua bideragarria izan zedin". Babes ofizialeko etxeek oso harre-ra ona eduki omen dute, eta azken hauengatik ere jende asko dabil galdezka. "Nik



Imanol Mujika alkatea.

uste horrelako lekuetara bizitzeko ez zaiola prezioari begiratzen, gustatu egin behar da. Herri handien beste alternatiba bat da. Oso urruti ere ez gaude, Ordizia eta Beasaindik 5 minutura".

Etxebizitzek gain, pilotalekua egiten ere hasiko dira urrian. Gipuzkoan herri bakarra da Altzaga pilotalekurik ez duena. Udaletxearen atzealdean egingo dute. Plaza bera ere, itxuraldatu nahi

dute, urbanizatu egingo dute. Itsasondorekiko libre orain dela 9 urte gelditu zen Altzaga. "Itsasondorekin jarraituz gero inbertsio hauek denak egitea oso zaila zen. Aurrekontu bat mane-jatzeko aukera ematen du. Aurrekontua txikia da, baina zintzo jokatura, inbertsioetarako dirutxo bat pilatzen da. 1990. urtetik aurrera egindako lana da, orain ikusten hasiko dena, ixileko lan asko egin da", dio alkateak.

Azpiegitura hobetzeko inbertsio handiak egingo ditu udalak. Baina aurrera begira, herrian bertan bizi pis-ka bat sortzeko helburuari ere ekingo dio. Biztanle kopurua zertxobait berresku-ratzen ari da, zenbait gazte herrian gelditzen ari direla kontuan izanik. Datu bat eman digu Imanolek. Az-ken 15-20 urtean gertatzen ez zen bezala, bost urtetik beherako bost haur daude herrian. Baina haur hauek herritik kanpora joan behar dute eskolara. "Gure ga-raian, ume sail bat ginen, eta herrian egonez, herria-ekin identifikatu egiten za-ra. Beste belaunaldi batzuk, identifikazio arazoa dauka-te, eskolara beste herri ba-tzuetara joaten direlako. Egunen batean Plan estra-tegikoaren beste alor batzu-ri heldu egin beharko zaio: haurtzaindegia jarri, jolas-lekuak herriko umeak el-kartzeko... eta eskola bera ere bai".

ZEGAMA

Urriaren 11n, herrian jubila-tuen eguna ospatuko da. Egurdiko ordu batean, Me-za Nagusia ospatu ondoren, bazkaria egingo da herriko kiroldegian. Hau guztia bertsolari eta soinu-jole la-guntzaz alaituta eta umore ona lagun izanda, egun pa-regabea igarotzea aukera izango da.

Nafarroa Oinez 98, Zangozan

Urteroko legeari jarraituz Kultur etxeak Nafarroa Oi-nezera joateko autobusa an-tolatu du. Izen ematea urria-ren 13tik 16ra egurdiko or-du biak bitartean egingo da. Bakoitzak 700 pezeta or-daindu beharko ditu.

Elektrizitate ikastaroa

Aurreko ikasturterako antolaturiko ikastaro bat izanda ere, azkenean bertan behera utzi zela eta, aurtengo udazkenean berreskuratzeko asmoa dago.

Ikastaro honek oinarritzko elektrizitatea ikasteko aukera eskainiko du. Interesatu guztiek izena eman beharko dute udaletxean urriaren 16 bitartean.

Maidar Azurmendi

Herriko jubilatuen eguna

GOISYSTEM

Informatika aplikazioak



* 98-99 IKASTURTEA

- WINDOWS 95
- WORD
- EXCEL
- AUTOCAD
- INTERNET

**Ikasle bakoitzeko ordenadore bat
Talde txikiak: 5 pertsona gehienez
Plaza mugatuak**

* Ordenadore muntaia eta salmenta

Joan Iturralde, 1

943 88 79 14 - 943 16 04 01

BEASAIN

BEASAIN

Helduen Heziketa Eskola

Egoitza berria du Helduen Heziketa Eskolak (HHE): Anbulatorio zaharra. Aurten goitako ikasturteko matrikulazio epea irekita dago, goizetan 11etatik 1era eta arratsaldetan 4etatik 6etara (943-160536). Dohainekoa da eskola hau eta 18 urtetik gorakoek har dezakete parte. HHE-k eskaintzen dituen aukerak hauetxek dira: Bigarren Hezkuntza; eskola graduatua ateratzeko prestakuntza; eguneratze kulturala; irakurketa, idazketa eta kalkulua hobetzea; 25 urtetik gorako unibertsitaterako sarrera; ekintza soziokulturalak; eta Lanbide Heziketa frogetarako prestakuntza.

Erretiratuen omenaldi-bazkaria

Igandean, urriak 4, izango dute herriko erretiratuek omenaldi-bazkaria, Antzizar kiroldegian, eguerdiko 1,30etan, Loinazko San Martin baselizan meza entzun ondoren. Beasainen bizi diren 65 urtez gorako pertsonak eta beren ezkontideek har dezakete parte, 400 pezetaren truke.

Asmube

Asmube emakume taldeak, urte bukaera bitartean hainbat ekitaldi antolatu ditu.

Urriaren 1ean, oleo bidezko marrazketa ikastaroa hasi zen. Ostegunetan izango da berau, arratsaldeko 3etatik 6etara.

Urriaren 5ean, Adierazpen tailerra hasiko da eta astelehenean izango da, arratsaldeko 5etatik aurrera.

Urriaren 6an hasita, goi-

Ekitaldiak beteta dator urria



Igartza jauregiko ateak zabalik

Azkeneko hiru uda hauetan, Gipuzkoako 130 gaztek, Igartzako jauregia txukundu dute, Udalak, GazteKutxak eta Aranzadik antolatutako auzolandegietan. Jauregiari jatorrizko itxura berreskuratu diofe. Aranzadikoak arkeologia ikerketa ari dira burutzen. Orain, etorkizunean zein erabilera izango duen eztabaidagai izango da datozen urteetan.

Dena den, 130 gaztei egindako lana eskertu eta egin dutena beasaindarrei erakutsi nahi izan zitzaientzen, irailaren 26an. Bertan, ikusentzunezko emanaldi berezia izan zen. Era berean, Igartzako jauregiaren berri ematen duen foiletoa ere kaleratu da.

Josi Insausti, Udaleko Gaztedia eta Kirol batzordeko buruak prentsaurrian hasi zuenez, gazteen lanari esker, sendotu egin da Gipuzkoan bakarra den, Igartzako monumentumultzoa. Aranzadiko Alex Ibañez arkeologoak gaineratu zuenez, auzolandegi sistema hau oso baliagarria da Gipuzkoako ondarea berreskuratzeko.

zako 9etatik 12etara, astear- te eta ostegunetan Yoga izango dute.

Asteazkenetan, berriz, urriaren 7an hasita, ortografia eta idazketa ikastaroa izango da, arratsaldeko 3,15etatik 5,15etara.

Urriaren 21ean, Bilboko Guggenheim museora egingo dute irteera.

Azaroan berriz, egur eta beiraren margoketa ikastaroa, osasun eskola, sinaduraren grafologia ikastaroa eta Euroari buruzko informazio hizketaldia izango dute, baita autobabestze ikastaroa ere.

Izena eman nahi dutenek, arratsaldeko 4etatik 6etara egin dezakete, Asmuberen egoitzan (kale Nagusia, 40).

Txanoberritsu

Udaleko Euskara-batzordeak eta Naturalki enpresak antolatuta, B eta D eredu- tan (B eredu batez ere), dabilen 5 urtetik 11 urtera bitarteko haurrentzat, larunbat goizetan edo arratsalde- etan 3 orduz (9,30etik 12,30era edota 3,30etik 6,30era) aisialdiko euska- razko Txanoberritsu ekital- dia ikasturte honetan ere izango da. Urriaren 10etik

ekainerarte iraungo du es- kola-garaian. Izenak emate- ko epea, gaur, urriak 2, bu- katuko da. Izenak emateko, 5.600 pezeta sartu behar di- ra Euskadiko Kutxako 3035 0017 18 0170046545 kon- tuan eta ordainagiria beteta- ko fitxarekin batera Udalet- xeko Euskara-zerbitzura eraman behar da.

Kimuak aisi taldea

Kimuak Basajaun Aisialdi- ko Taldeak, bihar, urriak 3, 7rekiko ditu berriro ere ate- ak. Ekintza ugari antolatu dituzte urtean zehar egite- ko: tailerrak, irteerak, joko- ak, kanpaldiak, jaiak... Adierazgarrienak hauek di- ra: urriak 3, Kimu jaiak, den- boraldi berriari hasiera emateko; urriak 10, zaldie- tan ibiltzera irteera; azaroak 13, Donostiako Aquariume- ra irteera; abenduak 19, Olentzero jaiak; eta urtarrilak 2, 3 eta 4, kanpaldiak. Aisi- talde honetan parte hartu nahi izanez gero, Kimuake- ko lokalean, (Kale Nagusia, 23) arratsaldeko 4,30etatik 8,30etara eman behar da izena.

Ikastaroak

● **Joste eta ebaketa** taile- rra, Pilar Mujikak zuzen- tzen duena, astelehenetik ostegunera izango dira, egunero bi orduz, goizeko eta arratsaldeko taldeetan. Izen emateak, Pilar akade- mian, Ubi etxean.

● **Saskigintza eta ipuin- kontaketa** ikastaroak aza- roan hasiko dira eta dagoe- neko izena emateko epea irekita dago. Ezkiaga Auzo etxean, 17:00etatik 20:00etara, eman behar da izena. Telefonoa: 943- 161024.

SEGURA

Eskolako benjaminak



Lehen aldiz eskolan hasitakoak; ezkerretik eskubira: Oskia Garaialde, Unai Imaz, Cristina Arias, Maria Sarasola, Uxue Maioz, Ainara Osa, Adur Alustiza, Maria Martin, Eneko Araiztegi, Maite Garmendia andereñoa eta bere magalean Iñigo Intxausti.

Pasa den ikasturtean hasi zen Laiotz Herri Eskolan 2 urteko umeen borondatezko eskolaratzea. Esperientziak merezi duela eta, 1996an jaiotakoek izan dute aukera oraingoan. Kintan 15 izan arren, momentuz 10 besterik ez dira hasi. Orduerdiko txandatan eta 5 laguneko 2 taldetan banatuta ibiliko dira 3 astez. Urriaren 13tik aurrera, ordean, 2 taldeak elkartuta ordubetez arituko dira 10:00etatik 11:00etara. Azaroaren 2an, 9:30etik 12:30era hasiko dira eta urtariletik aurrera arratsaldez ere bai, 14:30etik 16:30era.

Pelota

Noiz ez badakite ere, urrian da hastekoa Gipuzkoako klubaren arteko pelota txapelketa. Segurako taldean, jubentzetan, Inge Olano, Ekhi Albizu, Ibai Telleria, Uritz Gonzalez eta Asier Katalina eta Mikel Mendizabal idiazabaldarrak arituko dira. Seniorretan, Iñigo Otegi, Jon Ander Hombre, Ibon Etxeberria eta Altzako Julen Castellanos. Seniorretan, Garikoitz Oiarbidek Ordiziako Jai-alai taldekoekin jokatu du eta Enetz Olanok Idiazabalgo Atxurbidekoekin.

Futbola

Asteburuko emaitzak: **Errejonialak:** Ilintxa 1-3 Segura. **Jubenilak:** Segura 0-0 Urola. **Kadeteak:** Urola 2-1 Aizkorri. **Infantilak:** Eibar 5-1 Aizkorri. **Asteburuaran etxean:** **Kadeteak:** Aizkorri-Hernani, zapatuan 16:30ean. **Infantilak:** Aizkorri-Union Txiki, jaien 11:30ean.

Labur-labur

● **Argazki lehiaketa:** Segurako preso taldeak antolatutako txapelketara 48 argazki aurkeztu dira. Lehenengo saria 'Zapirri' urretxurarentzat izan da, 2.a Joseba Campos ormaiztegiarrentzat eta 3.a Agurtzane Agirre segurarentzat.

zat. Argazki guztiak ikusgai daude Elorripen jarri den erakusketan.

● **Soinketa:** urteroko taldeek irailaren hasieran ekin zieten soinketa ikastaroari. Jubilatuak urriaren 1ean hasita ekainera arte arituko dira, pelotalekuan, astearte eta ostegunetan 15:00etatik 16:00etara. Interesatuak Atsedenen eman behar dute izena.

● **Eskulan ikastaroa:** Udalak antolatuta, urriaren 19an hasiko da haria, pintura, portzelana... landuko diren 30 orduko ikastaroa. Astelehenetan, 14:30etik 17:00etara eta 3 hilabeteetan zehar. Informazio gehiago edo izen ematea udaletxean.

● **IV. Iparra-Hegoa:** 3 alditan Seguran antolatu eta gero, 4. edizioa Iparraldean izango da; Nafarroa Behereko Donapaleun, azaroaren 25etik 29ra.

● **Urriaren 18ko Zangozako Nafarroa Oinezarako** autobusa antolatuko du Elorri Kultur Elkarteak. Txartelak Elorripen jarriko dira salgai.

Joseba Telleria



Artzai txakurkumeak salgai

Artzai giroan hezia eta lan egina, aspalditik ditu Joxe Mari Lardizabalek arrazako euskal artzai txakurrak salgai. Batek eskatu eta besteak eskatu (berak dioen bezala, arditarako bakarren bat eta beste guztiak pascorako), azkenean txakurrak umetzeari ekin zion. Arra zein emea, biak artaldeekin ibiliak dira. Hauen kumeei ere lehen urtean irakasten hasiz gero, ederki asko ikas dezakete Joxe Mari dioenez. Momentu honetan 3 artzai txakurkume (argazkikoak) eta rottweiler bat ere baditu salgai. Harremanetarako telefonoa: 943801467.



Negurako preparatzen

Beste baserri eta etxe askotan bezalaxe, Ugaldeneko Iñaxito Ugalde eta Mari Karmen Urbistondo, udazkena heltzeaz ari ziren Gabiria aldetik ekarritako haritz egurra moztu eta txukun asko euren etxe ondoan pilatzen.

LAZKAO

Ekain Arruabarrena

Munduko txapelketan 9. postuan geratu zen lazkaotar txirrindularia. Estatu Batuetan, Koloradon, izan ziren munduko txirrindulari gutxituentzako txapelketak. Bertan lineako lasterketan Ekain 13. izan zen, espainiar selekziozko ordezkarien antolakuntza ezaren ondorioz irteera beste guztiek baino 4 minutu eta erdi beranduago atera ondoren. Gorabeheretz jositako 28 kilometroko lasterketa izan zen hau.

Erlojuaren aurkako lasterketan, berriz, 9. postuan bukatu zuen. Bere nazioar-

teko lehen lasterketa den honek esperientzia hartzeko balio izan dio Ekaini eta gustora etorri da bertatik.

Urriko ekintzak

Maizpide Euskaltegiak, Goierriko Euskal Eskolak eta Udalak antolatzen dituzten ekintzetan hauek izango dira ondorengo egunetan:

Urriak 7: 'Manaslu: izpirituen bizilekua' diaporama, Koke Lasa ormaiztegiarraren eskutik, 21:00etan Maizpiden.

Urriak 14. 'Gure herriaren oihua' hitzaldia emango du Gererta Iñaki Arozenak. 21:00etan udaletxean.



Joan zen larunbatean, urtero San Miel jaian inguruan egin ohi den bezala, arrakasta handiz ospatu zen sagardo dastaketa.

San Miel ondorengo kontuak



San Benito Ikastolako Hizkuntza eskola guztion eskura

Badira 4 urte, San Benito Ikastolako Hizkuntza akademia martxan jarri zela. Lazkaotar eta goierritar guztiontzat dauzka atea irekita, eta ez San Benitoko ikasle eta gurasoentzat bakarrik. Aurten gainera, ordutegia luzatzeko asmoa daukate Maite Garmendia, Monika Calvillo, Aitor Madrazo eta Idoia Baztarrika irakasleek. Era honetan, taldeak osatuz gero, goizetan ere emango dituzte klaseak.

Hizkuntza eskola honetan, ingelesa eta frantsesa ematen dituzte. Maila guztiak. Zenbait azterketa ere egiteko aukera izango dute bertako ikasleek Lazkaon bertan. Besteak beste, First eta Trinity College London. Ingeleraz ahoz komunikatzeko gaitasuna neurtzen du azken honek eta Euskal Herrian oso leku gutxitan dago azterketa egiteko aukera. Gauzak honela, ahozko hizkerari garrantzia handia ematen diote hizkuntza eskolan eta gramatikaz gain, ahozkotasuna asko lantzen dute.

Informazio gehiago nahi edo izena eman nahi izanez gero, San Benito ikastolara joan besterik ez duzu. Harremantarako telefonoa, 943-880800.

LEGORRETA

Irailaren 27an ospatu zuten herriko erretiratu eta pensiodunek beraien egun handia. Aurten hildako bazkideen oroimenezko meza entzun ondoren, Eneritz eta Naiara trikitilariak alaituriko hamaiketako ederra dastatzeko aukera izan zuten. Urtean zehar jokaturako txapelketa desberdinetako irabazleei ere eman zitzaizkien hainbeste merezitako sariak. Ospakizun guzti hauen ondoren bapo bazkaldu zuten frontoira hurbildu zirenak. Bazkalorduan,



omenaldi berezia eskeini zitzaien Anttoni Odriozola eta Inaxio Garmendiari bazkaltzera joan ziren herriko

zaharrenak izateagaitik. Hau dela eta opari polit bat jaso zuten.

Erretiratuen eguna giro onean

Babes ofizialeko etxebizitzak

Udalak eraiki nahi dituen Babes Ofizialeko Etxebizitzak buruzko informazioa emateko bilera bat ospatu zen irailaren 22an. Udalak Alluneko erosi berria du eta bertan 60 eta 70 m² bitarteko 30 etxebizitza eraikitzeko asmoa du. Interesatua dagoen oro, Udaletxera hurbildu dadila, bertan egongo baitira nahi duen guztiarentzat planoak ikusgai.

Josune Amondarain

ATAUN

Gabrielenea aterpetxe berria larunbatean inauguratu zen



Gabrielenearen inaugurazioan. Argazkian, apaizaren jarduna eta zizka-mizkak mahai gainean.

Gabrielenea aterpetxe berria irailaren 26ean izan zen inauguratua. Herriko oso gune egoki baten kokaturik, bere erabilera eta zerbitzuak, eman daitezkeen kultur nahiz turismo ekimenen beharretara zuzentzen da. Jesusen Bihotzaren Fundazioa-ren babesean sortua denez katekesisaren irakas-kuntzarako ere erabilia izango da. Egoitzak 40 ohe, 5 gela, erabilpen anitzetako beste gela haundi bat eta sukalde eder batekin osaturik dago besteak beste. Elkarre honek aldi berean ondorengo hauei luzatu nahi die eskerrak eraberriketa hau burutzeko eman dien laguntzarengatik: Kerexeta Lantegia, Ataungo Udala, Kutxa, La Caixa, Pryca, Eroski, Orkli, Unaiki Bi, Arrexalar, Electricidad Tapia, Genobeba Auzmendi Botika, Bi-

kain Altzariak, Rogelio Eskisabel, Juan Auzmendi, Jesus Jauregiren Familia eta beren izenak azaldu nahi ez dituzten beste zenbait erakunde eta pertsona. Bere zerbitzuetaz interesa eta baliatu nahi izanez gero 943-180024 telefonora deitu eta informatuko zaizu.

Eate Abesbatza

Herrian aspaldi honetan ilusioz ikusten genuen Eate Abesbatza ixildu egin zaiagu. Jendeak elkartzeko zituenez zailtasunak medio bere bilakaera amaitutzat jo behar izan dute. Abesten ez duen herri bat hiltzorian omen dago. Espero dezagun aldi baterako mutu aldia besterik ez izatea.

Musika eta ingelesa

Kirol ihardueraz gain, urrian emango zaio hasiera



Ibilaldi Neurtua

Arrakasta haundiz burutu dira Ataun Kirol Ekarteak eta Oargi Troskaetak antolatutako aurtengo Mendi Ihardu-naldiaren barneko ekimenak.

Antolatzaileek pozik ziren Intsutiko Iturriaren inguruan auzolanean egindako garbiketaz. Nola ez igandean azkenean eguraldiak lagundu zuelako eta Ibilaldi Neur-tuan izandako partaidetzak eta amaieran jasotzen ziren eritzi onak hurrengo urteetarako animo eta bultzakada haundiak bihurtzen zirelako


ere kultur ihardueren kanpainari.

● **Musika ikastaroa** antolatutako aurtengo honetako zerbitzua osatzeko asmoz. Ikastaro hau batez ere umeei zuzendua dago eta astean bi egunetan izango da.

● **Ingelesa ikastaroak.** Iazko arrakasta kontutan hartuta era berdinean jarraituko du baita ere astean bi egunetan emango delarik.

● **Dantza Taldeak** ere, bestalde, aurrera jarraitzen du bere bidean. Euskal Herriko dantzak ikasteko gogoia izanez gero aukera ezin hobea. 6 urtetik aurrera edozein umek har dezake parte eta batez ere mutilei dei berezi bat egiteko eskatzen dute.

Hauetako ihardun batean interesa izanez gero Udaltxean eman behar du bere izena urriaren 7rako.



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran
ZERAMIKAK

☎ 943 88 79 72
Senpere. 7
BEASAIN

ORDIZIA

Internet, bideoak ikusi, musika entzun edo Word, Excel eta informatikarekin zerikusia duten beste hainbat programaz gozatzeko aukera daukazu orain, liburutegian jarri dituzten 4 ordenagailuei esker. Izan ere, Barrena jauregiko liburutegian gela bat egokitu eta etorkizunean, eta baita gaur egun, hain beharrezkoak izango diren programok eskuragai izango dituzu. Noski, liburutegiko bazkideentzat soilik egongo dira ordenagailuok eskuragai. Internet munduan sartu nahi baduzu adibidez, 300 pezeta ordainduz gero, beste inon lortu ezin dezakezun informazioa lortuko zenuke. Gaztetxoagoentzat ere bideo ikustaldiak eta musika entzutegiak dohainik izango lirateke eta baita edozein lan egiteko Word, Excell... programez baliatu zintezke. Hori bai, erabili beharreko disketeak liburutegian bertan eskatu beharko dituzu.

Futbito txapelketa

Asteburu honetan emango zaio hasiera Majori Kiroldegian jokatzeko den herriko futbito txapelketari. Aurten, antolatzaileen artean aurpegi berriak egongo dira, Emilio eta 'Txuku' beterrak batera 'Boñi', 'Keko' eta 'Txubel' ariko baitira. Iaz baino talde gutxiago ariko badira ere ziur taldeok maila ona erakutsiko dutela

eta norgehiagoka politikak ikusteko aukera emango dutela. Antolatzaileek bi murtzotan banatu dituzte eta bigarren fasera multzo bakoitzeko lau lehenak joango dira. Neurketak larunbat eta igande goizetan izango dira Majorin. Parte hartzaileen berri izango duzue hurrengo batean.

Asto kaleko lanak

Goitia kalea aurrea, Legazpi kalea eta Kanpo Roña hurrea eta Goen kalea azkenik. Guzti horietan zoru berria ipintzeko lanak amaituta, orain Elkano kaleari egokitu zaio txanda. Denon artean Asto kalea bezala ezagunagoa den kale honek 80 metro inguruko luzera du eta 35 milioko aurrekontuarekin otsailerako zoru berria ipinita izango duela asmotan dabilta udal txekoak. Behin lanok amaituta Etxezarreta, Santamaria, Enparantza Nagusia eta azkenik Kale Nagusia geratuko lirateke hirigune historiko guztia berriztatuta ikusteko.

Ur galtze handia

Garagartza Plazako etxe berriak neurri politetan doaz aurrera, oztupoak oztupo. Gogoan izango duzue oraindik orain urtebete aurreko etxe zaharra botatzen ari zirela gertatutakoak. Etxealde bat erori eta Ordizia kalera joan zen jendearen harriturarako. Hilabete

Informatika gela Barrenan



Bertso-eskola martxan

Urriari sartzearekin batera Goierriko Bertso Eskolak atak zabaltu nahi dizkie bertsotan ikasi nahi duten ikasleei. 97-98 ikasturtea hain emaitza onekin amaitu ondoren, ziur aurtengorako ikasle kopuruak gora egingo duela. Izan ere, Goierriko Bertso-eskolako haurrek Gipuzkoako txapeladun izatea lortu zuten, beste hainbat aipamenekin batera. Ekaitz Goikoetxea beasaindarrek ere, bigarren urtez jarraian bere mailako Euskal Herriko txapela burugaineratzea lortu zuen Mungian.

Eskolak Ordiziako Barrena jauregian izango dira aurten ere, astelehenero gazteenek eta ostiraletan bat bateko talde helduxeagoak. Deialdia 5 eta 6. mailatik gorako Goierriko hainbat ikastetxetako haurrei zuzendua dago eta jakin, inork izena eman nahiko balu, bere irakaslearekin harremanetan jartzea besterik ez duela. Erantzunak urriaren 10a baino lehen eman beharko dira eta klaseak hil bereko 19an hasiko lirateke.

batzuk geroago garajeak egiten ari zirela ere arazoak izan zituzten. Eta orain ur galtze izugarriak gertatu dira. Irailaren 23an eskabadorak tuberi bat apurtu eta 800 metro kubiko ur isuri ziren. Segituan konpondu zuten matxura eta urik gabe geratu ziren etxeetara iluntzerako iritsi zen berau. Ea hemendik aurrera hobeto doazkien gauzak eta lanak ur-

tea amaitzerako egiten dituzten.

Informazio bulegoa

Gazteentzako informazio bulegoak neguko ordutegia izango du hemendik aurrera. Gogoratu berau Barrena jauregi azpian dagoela eta irekita egongo dela goizeko 11etatik 1era eta baita arratsalde 5etatik 7etara.

Aitor Calvillo

Arkupe
tapizegia

Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredolak
Mantak - Malmidreak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagailak

J. M. Barandiaran Plaza

943 88 00 84

ORDIZIA

ORDIZIA
AUTO-ESKOLA

Aita Urdaneta

943 88 72 76

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

Aitzol Sukia, zaldibiar pelotari txapelduna

Santa Fe jaien atarian, Zaldibira joan gara bertako gazte batekin egotera. Bera Aitzol Sukia da, pelotari afizionatua. Aurtengo udan partidu ugari jokatu beharra izan du. Hemendik aurrera gogor entrenatzea tokatzen zaio, zaindu beharra, baina jaietan parranda egiteko ere tarteren bat aurkituko duela dio. Horretarako beti izaten da denbora.

- Ezagutzen ez zaituenarentzat, nor da Aitzol Sukia?

- 20 urte bete berriak ditut, enpresaritza ikasten ari naiz Donostian, oraintxe 3 kurtsoa hasten dut. 1,88-ko altuera eta 83 kiloko pisua ditut. Atzelari postuan jokatzen dut. Pelotari nahiko segurua naiz, oraindik ezkerrekin soltura hartzea eta sakeen errestoa ditut hobetu beharrekoak.

9-10 urtekin hasi nitzen pelotan, txiki-txikitatik partidu mordo bat jokatu ditut. Hor ibili gara alde guztietan

jokatuz eta ahal dena eginez. Aurten Euskal Liga irabazi dut Amezketako Aritzekin eta jubeniletan ere 2 aldiz izan nintzen Gipuzkoako txapeldun, Euskadiko azpitxapeldun ere bai. Aurten Lezo eta Azkoitiko txapelketak irabazi ditut. Zaldibiko pelota eskolan ibili izan naiz beti baina hemen entrenatzeko behar adina maila ez nuenez, Amezketara joaten hasi nintzen duela urte pare bat. Aritz profesionaletara pasa zenetik Saralegi amezketarrekin jokatzen dut.

- Zein da zure helburua epe motzean?

- Afizionatueta ahal den ondoen ibili nahi dut eta Euskal Ligan ahal den aurreen ibili. Beste txapelketa garrantzitsu batzuetan ere gora iristen saiatuko naiz.

- Konpetentzi handia al dago afizionatueta?

- Beste urteetan baino gutxiago, pelotari asko profesionaletara pasa baitira. Hala ere, oraindik pelotari asko dago hor. Azken aldian profesionaletara hainbeste igotzeak guri ilusioa eta la-



nerako gogoia emateko balio du. Orain ikusi egin behar zer pasatzen den.

- Entrenatzailea nor duzu? Zein entrenamendu mota egiten duzue?

- Orain Amezketako 'Xalton'-ekin gabiltz. Orain arte herriko jendearekin ibili naiz. Udan partidu asko jokatzen dugunez ez dugu asko entrenatzen, orain neguan hasten gara gogorrago. Aste barruan entrenamendu bat eskuz eta 3-4 egunetan korrika eta fisikoa. Denbora libre dagoenean pelota bigun batekin frontoian ibiltzen gara izerdia ateratzen. Azken aldian Lazkaoko Kemenen nabil mediku azterketak egiten. Berez guk Errealeko fitxa dugu eta han ere probak egiten ditugu.

- Zein dituzu gustoko pelotariak?

- Atzelarietan Beloki, orain hain modan dagoen Mikel Goñi ere bai. Zaharretan berri, Galarza gustatzen zait, baina orain nahiko bajatuta dago.

- Noiz izango zara horien ondoan jokatzen?

- Bueno, oraindik behintzat ez dago peligrorik! Ametsa hori da, baina oso zaila da eta ikusiko dugu.

- Profesionaletan bi enpresen arteko lehia onerako al da?

- Pelota ikusten dutenentzako agian okerrerako, bi enpresetakoak elkarren aurka jokatzea politagoa izango baitzen. Pelotarioi komeni zaigu biak hor egon eta konpetentziak jarraitzea.

- Orain mundiala dator.

- Selektzioa eginda dago eta ni ez naiz hor sartzen.

- Euskal selektziorik ez doa ordea.

- Hori lortzeko ari dira saiatzen. Baina ez dakit azkenean ametsa beteko den, ez da erraza izango.

NAZABAL ERRETEGIA

Otordu goxoak janez lagunarteko giroa

☎ 943 88 71 46 Sta. Fe Kalea
ZALDIBIA

BIOK ALKAR auto konponketa

ABS frenuetan eta injekzioan tailer espezialista

JAI ZORIONTSUAK PASA DITZAZUELA!

☎ 943 88 01 60
Mendi-Ondo ZALDIBIA



Mendi-Ondo etxea

☎ 943 88 40 57

ZALDIBIA

● Iturgintza
● Berogintza

Esteban Lasa, 7

☎ 943 88 80 29

BEASAIN



Zaldibitar koadrila 1963ko ezkontza batean

Domingo Mendizabal eta Mikaela Garmendiaren ezkontzako argazkia da, 1963koa. Jose Bernardo Garmendiak utzi digu argazkia. Ezkontza honetan bitxikeria bat izan omen zen: Madrilgo Jose Maria Castilla ministroa bertan izan zela.

Beheko lerroan, ezkerretik eskubira: Ramon Irastorza, Juan M. Artano, Jose M. Intsausti, Adrian Berrondo, Jesus Nazabal, Markox Intsausti eta Jose Mari Jauregi.

Goiko lerroan: Jose Arruabarrena, Julian Arrese, Jose M. Alkaiaga, Mikaela Garmendia, Domingo Mendizabal, Joakin Arizkorreta, Antonio Erauskin, Marzelino Murua eta Juan Garmendia.

Atze-atzeko lerroan: Jose B. Garmendia, Manuel Erauskin, Inazio Garmendia eta Isidro Erauskin.

MULTIOPTICAS

**Bonardi'98 bilduma,
monturak 3.150 pta.n**



Orain, **milaka sariren zozketan**
parte hartu ahal izango duzu
Bonardi bildumako edozein
montura erosteagatik.



B500 Mod.



B300 Mod.



B600 Mod.



B800 Mod.



Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari:
• MULTIOPTICASen kreditu-txartela. Diru barik erosteko modurik errazena.
• Ordainketa 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, balere errekaratu barik.



LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
TRAVEL CLUB-en
PROGRAMAKO
PUNTUAK

Nº1 EN SERVICIOS OPTICOS



LARRAÑAGA

Ibargarai, 16 - BERGARA
Tel. 943761575

J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
Tel. 943792995

J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA
Tel. 943889988

20 pza.-tako Ontziteria

HARMONIA

Mod.

**AMELIA OPAL
decorado**

- * 6 platos llanos
- * 6 platos hondos
- * 6 platos postre
- * 1 ensaladera
- * 1 fuente honda redonda



Gure zentruen artean
15.000 ontziteri
eskuragarri

2.795



3 Zartagiko sorta

- * Altzairu esmalteztatua
- * Barne geruza itsats-ezina
- * Neurriak: 18, 20 eta 24 zm Ø

995



Gure zentruen artean
3 zartagiko 55.000 sorta
eskuragarri

PRYCA PASS TXARTELA. NAHI DEZUN BEZALA ORDAINDU.

PRYCA

ZENTRU KOMERTZIALAK

